ASTEKARIA - 2012ko apirilaren 20an - XVI. urtea - Usurbil, 486. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

# Noaua!



Apirilaren 25ean,
Jai Batzordearen bilera




## Juanjo Lertxundi: "Garrantzitsua da jakitea bizitzan zer lortu nahi dugun"


PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
ATE IREKIAK
Inskripzio epea zabalik!
Enpresagintza Fakultatea
Oñati APIRILAK 21 larunbata, 11:00
Irun APIRILAK 28 larunbata, 11:00
ARETO NAGUSIAN
Etorri aurretik izena eman!
Goi Eskola Politeknikoa
Arrasate MAIATZAK 12 larunbata, 10:30
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Eskoriatza MAIATZAK 26 larunbata, 11:00
Gastronomia Zientzien Fakultatea
Donostia MAIATZAK 26 larunbata, 10:30
902 110 436
www.mondragon.edu/prest


Egilea:
UNAI ITURRIAGA
buah txabal!
Aktorea:
JON ZUBIAGA
Apirilaren 22an
Igandea
19:00, Sutegin
Garikoitz Kortabitarte "Beti", 20 urte bueltako gazte bat da. Gatxizena beti lokalean sartuta egotetik datorkio. Bart, salbuespen moduan, herrira atera da parrandara eta tragedia bat gertatu zaio: mugikorra galdu du. Zergatik da, ordea, mugikorra galtzea halako tragedia? Garikoitzek horren zergatia kontatzen digun bitartean, gazte horrek euskararekin duen harreman gatazkatsua, bere izaera xelebrea eta lokaletako gazteen gaineko topikoen parodia estremo baten lekuko egingo gaitu.
Sarrera: 5€ (Txiriboga tabernan, Noaua!ko egoitzan eta egunean bertan) Noaua!ko bazkideek eta 14-16 urte bitarteko gazteek 3€tan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.
Noaua!
www.noaua.com

Albistea iruditan

# Jalgi Hadi Garaipenera! taldekoak, Amaiurren

Martxoaren 24an, Amaiurren eta Elizondon izan ziren sortu berri den Jalgi Hadi Garaipenera! Buruntza gazte taldeko kideak. "Eguraldi bikainak lagunduta, giro ederrean igaro genuen Andoain, Hernani, Lasarte eta Usurbilgo gazteok elkarrekin eguna. Triki-Bertso-Poteoa, Amaiurko monolitora igoera, bertako konkistako azalpena, jokoak... izan genuen zer gozatua. Funtsean, gure kultura eta historiaren inguruko ezagutza praktikan jarri genuen", berri eman dute bilgunetik.



IRUDIAN, JALGI HADI GARAIPENERA! BURUNTZA GAZTE TALDEA.

## Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 943 372 001 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KZgunea | 943 570 999 | Oa botika | 943 376 076 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!
NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

# Aste… Santua?

Aste Santua gertakari tamalekin hasi eta haserrea eragiteko moduko albisteekin joan berri zaigu. Lasarte-Oriako zoritxarreko hilketarekin batera, Ertzaintzak jaurtitako piloten ondorioz Atlhetic futbol taldekoen garaipena ospatzen ari zen gazte baten hiletak bete ditu hedabideetako titularrak. Hortik aurrera, elkartasun eta salaketa mezuak nonahi zabaldu dira, kalean eta sare sozialetan bereziki. Azkar batean gau hartan ustez liskarren bat eragin zuten bi gazte atxilotu dituzte, eta esan dute, Ertzaintza horregatik bertaratu zela pilotak jaurti zituzten ingurunera. Baina bi aste beranduago, inork ez daki nork eta zergatik jaurti zituzten pilota haiek, baina ikerketa martxan omen da. Teorian ezin dira halako armak erabili, baina erabili dira. Datorren urtetik aurrera, albo batera utziko omen dituzte, baina salbuespen egoeretan erabiltzeko eskubidea izango dute. Zer jo dezakete salbuespen egoera gisa? Iragarpen kezkagarriak inondik ere.

Asteotako beste irudi nagusietakoa Madrilen izan da. Poliziak eskoltatuta, hainbat hedabide unea grabatzen ari zirela, 87 urteko moja bat ikusi dut telebistan, Madrilgo epaitegietatik irteten. Noiz eta Pazko Astean gainera. Haur lapurtuen auzian inputatu dute bera. Ustez lapurtuak izan ziren haurren hainbat senideek argi diote, bera sare horretan inplikatua dagoela. Mojak epaile aurrean isiltzea erabaki zuen ordea, ez deklaratzea. Ezer esatekorik ez zuela dirudienean, ordu gutxira, errugabe dela esanez hedabideetara komunikatu bat bidali zuen. Bere burua epaitegietan defenda zezakeen, baina komunikabideen aurrean egitea nahiago izan zuen, haur lapurtuen kasuak nonahi ageri diren honetan, Euskal Herrian Gipuzkoan bereziki. Senideak informazio eske ari direnean, hainbat hilobi huts lurpetik ateratzen eta errugabetasun printzipioa inori ukatu gabe, ustezko inplikatuak auzitegietara deitzen hasiak diren honetan.

Ustez errudunak izan daitezkeen batzuk ukiezinak ote dira? Ukiezina dirudien beste pertsonaia ezagun baten aipamena bukatzeko. Madriletik irten gabe, espainiar gobernuaren murrizketa berriak iragartzen jarraitzen duten honetan, hara non eta… Errege espainolak min hartu du, igandetako "paga" Afrikan xahutzen, Errepublika Egunaren bueltan elefanteak akabatzen ari zela… Izugarria. Hedabideetan inoiz baino kritika gehiago jasotzen ari da monarkia… Abdikazioa gertu al da? Edo neronek behintzat nahi nukeen moduan, monarkiaren gainbehera eta amaieraren hasieran ote gaude?

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - **Aritz Gorriti** - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Joxean Telleriaren iloba espetxeratu egin dute

Joxean Telleria lasartearra hiltzea leporatuta, apirilaren 8an Usurbilen atxilotu zuten 24 urteko bere iloba espetxean da joan den astetik, epailearen aginduz. Hala erabaki zuen, gazte usurbildarrari deklarazioa hartu ostean. Epailearen aurrera eramateko dagoen 72 orduko epea gainditu eta atxiloaldia beste 48 orduz luzatu ostean deklaratu zuen usurbildar gazteak. Apirilaren 7an Lasarteko Pepe-enea baserrian hilik agertu zen Joxean Telleria hiltzea leporatzen zaio. Arma hain zuzen, hilketa gertatu eta bi egunera agertu zen Oria ibaian.

## PSE-EEkoak segurtasun neurri eske, Txikierdirako

Txikierdin N-634 errepide parerako segurtasun neurriak hartzea galdegin du Usurbilgo PSE-EE-k, prentsa ohar bidez. Gune horrekiko ardura adierazi du aipatu alderdiak, segurtasun neurri eta argiztapen falta dela eta. Urbilera doazen hainbat herritarren kexak jaso dituzte eta istripuak ere gertatu izan dira bertan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Azpiegitura alorretako diputatu Larraitz Ugarteri Txikierdin hobekuntza lanak burutzeko eskaera egin diotela berri eman du Usurbilgo zinegotzi Ricardo Crespok.

## Aldaketak EuskoTreneko autobus zerbitzuan

Aste hasieraz geroztik indarrean dira autobusetan txertatu dituen aldaketak. Ordutegi edota ibilbideak berritu dituzte, Deba Behea eta Urola Kostako zerbitzu desberdinetan. Usurbili dagokionez, jakitera eman dutenez aurrerantzean Usurbildik N-634 errepidetik barrena Lasarte-Oria edota Donostia aldera doazen EuskoTreneko autobus guztiak Urbil merkatal gunetik sartuko dira. Informazio gehiago nahi duenak, lurraldebus.net edo euskotren.es web orrialdeetara jo dezake. Bestela, deitu 902 543 210 telefono zenbakira.

# Agerraldi jendetsua igande honetan frontoian, Agurtzane Solaberrietari elkartasuna adierazteko

**Hamar egun barru, apirilaren 30ean hasiko da Espainiako Auzitegi Nazionalean, D3M eta Askatasunaren aurkako epaiketa. 13 euskal herritar daude auziperatuak, tartean, Agurtzane Solaberrieta usurbildarra. Epaiketa salatu eta Solaberrietari elkartasuna adierazteko hainbat ekimen antolatu dira egunotarako, tartean, agerraldi jendetsua iragarri da igande eguerdirako.**



ASTELEHENEAN HERRI BATZORDEA BILDU ZEN POTXOENEAN.

Frontoian izango da ekitaldia. Baina ekimen gehiago ere deitu dituzte, hastear den epaiketari begira herrian sortu berri den batzordetik. Astelehenean burutu zuen hain zuzen, lehen batzarra Potxoenean. Bilgunea, “injustizia eta eskubide urraketa hauek salatzeko” sortu dute.

HERRI BATZORDEA

“Jarduera politiko jakin bat burutzeagatik epaituko dituzte; politika egiteagatik”

Aipatu moduan, hilaren 22ko ekitaldiaz gain, mozio bat aurkeztuko dute datorren asteko osoko bilkuran aztertu eta bozkatzeko. Donostian ere Eleak mugimendutik beste hitzordu bat antolatu dute hilaren 28rako eta usurbildarrak bertara joateko deituak daude. Behin epaiketa hasita bestalde, mobilizazioak iragarri dituzte, eta Usurbildik Madrilera joateko autobusa antolatzekotan dira.

Epaiketa hain zuzen, hilaren 30ean hasi eta maiatzaren 18ra arte luzatzea aurreikusia dago. Herritarrak hitzorduotan parte hartzera deitzen dituzte herri batzordetik: “Epaiketa hau salatzeko eta auzipetuei elkartasuna adierazteko egingo diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dizugu”.

## Epaiketa, “erabat politikoa”

7 eta 9 urte arteko espetxe zigorrak eskatu ditu fiskalak 13 auziperatuen aurka. Agurtzane Solaberrietarentzat zehazki, 9 urteko espetxe zigorra. Batzordetik hastear den epaiketa salatu dute, gaur egungo egoeran erabat lekuz kanpo dagoela diote. “Guk argi dugu izaera erabat politikoa duen epaiketa baten aurrean gaudela, izan ere, jarduera politiko jakin bat burutzeagatik epaituko dituzte; politika egiteagatik. Epaiketa justifikatu ahal izateko erabiltzen duten tesia, “dena ETA da” alegia, aitzakia bat besterik ez da. Epaiketa honekin jokoan dagoena, demokrazia formaletan dauden oinarrizko eskubide zibil eta politikoak dira: elkartzeko eskubidea, adierazpen askatasuna eta hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea. Epaiketa, beraz, oinarrizko eskubideen urraketa nabarmena da”. Bada egoera berean den beste herritar bat ere; Marisa Alejandro, “auziperatuta dago, epaiketaren zain”.

## Laguntza kanpaina

Epaiketa gastuei aurre egiteko, laguntza kanpaina bat abiarazi da, herriz herri, mezu honen bidez: "luza diezaiegun bostekoa auziperatuei, eskuz esku justiziaren injustizia ikusarazteaz gain, epaiketa politikoen aurka kalera ateratzeaz gain eman diezaiegun gure babes ekonomikoa ere. Lagun ditzagun apirilean epaituak izango diren D3Mko kideak gure bostekoa luzatuz", deitu dute. Bost euroko bonoak eskuratzeko aukera izango da. Edota kontu korronte honetan ere ekarpenak egin ahalko dira: 3035 0095 94 0951113417.

## Deitu diren hitzorduak

### Apirilak 22, igandea
12:30 Agerraldi jendetsua frontoian, Agurtzane Solaberrietari elkartasuna adierazi eta epaiketa salatzeko.

### Apirilak 24, asteartea
18:00 Osoko ohiko bilkura Usurbilgo Udaleko udalbatza aretoan: mozioa aztertuko da.

### Apirilak 28, larunbata
13:00 Eleak mugimenduak deitutako ekitaldia Donostiako Bulebarrean: eskubide zibil eta politikoen puzzlea osatu nahi da. Usurbili 100 pieza jartzea dagokio.

### Apirilak 30, astelehena
19:30 Elkarretaratzea, epaiketaren lehen eguna dela eta.

### Maiatzak 7, astelehena
Madrilera joateko autobusa antolatuko da.

## AGINAGA

Mª ANGELES ARRUTI

# Arbaso aginagarrak



Aste Santua igaro ondoren nator zuengana gauza bat argitu nahirik. Martxoan ospatu zen mendi lasterketan parte hartzaile asko izan zirela eta mutiletan irabazlea Debako Igon Mancisidor Arruti izan zela. Kontua da, mutil honen ama Intxaurretan jaioa dela eta poz handiarekin hartu zuela bilobak irabazi zuenaren albistea. Hor duzue argazkian, txapela jantzita duela eta lore sortarekin. Aldamenean, nesketan irabazle izan zena, Nerea Amilibia aiarra hau ere. Hau diot, neu ere aiarra bainaiz eta ilusioa egiten dit adieraztea.

Neguko arropa berriro ateratzea tokatzen zaigu. Zaindu katarro, gripe eta neumoniak. Agur eta hurrengora arte.



## KALEBERRI

MADDI ZALDUA

# Jai ondoren alferra



Baten batek izan du eguzki izpi indargabe batzuez gozatzeko aukera. Beste batzuek, eguzkirik gabe euria izan dute opor-lagun baina izan dira baita ere, euririk eta eguzkirik gabe egun tristeez gozatzen jakin dutenak.

Guztientzat ordea, amaitu dira zoritxarrez Aste Santuko eta baita batzuen kasuan, Pazko Asteko opor egun luze guzti horiek.

Eta orain, berriro ere egunerokotasunera bueltatu behar izan dugu, hori bai, nabarmen kostata. Niri behintzat izugarri kosta zait berriro ere eguneroko errutinara itzultzea.

Izan ere, ordurik gabe esnatzeko aukera duzunean, kalean etxeratzeko ordurik gabe ibiltzen zarenean eta alde batera eta bestera gainontzeko egunetan ez bezala inguruko nahiz urrutiko lekuak ezagutzera joateko aukera suertatzen zaizuenean, nola ohitu norbera berriro ere eguneroko iratzargailuaren soinuaz esnatu eta finkatutako egitekoetan jardutera?

Zaila da. Baina lasai, hartuko diogu honi ere pixkanaka erritmoa. Eta konturatzerako, eguzkiaren laguntzaz, geroz eta gertuago ikusiko dugu udako oporraldia. Ez baita hainbeste geratzen, pare bat hilabete pasatxo baino ez, gogorrena agian, baina ez da azken txanpa besterik. Animo!

## SANTUENEA

PAKO AGUDO

# Ongi etorri errutinara



Merezitako oporrak eta gero hemen gara berriro bueltan. Aste Santua! Horixe izan zen auzoan ere. Aparkatzeko arazorik ez, lasaitasuna, bakea txoko guztietan, euria, kazkabarra, haize hotza, kale hilak... A ze penitentzia! Nahiz eta “Santu”enean, hemen prozesio gutxi izan. Denok auzotik kanpo, eguzki izpiren baten bila seguruenera, eta geratu garenok luzatzen ari diren egun hauek aterpean pasa behar. Prozesio bakarren bat izan da Tragoxka taberna inguruan, baina bestela auzoa hila gelditu zaigu aurten ere. Aste Santua deitu arren, denok irakurketa ezberdin bat egiten dugu egun haueetaz, baina hori bai egun intentsoak izaten dira. Normalean gauz eta konpromiso gehiegi pilatzen dira aste batean. Beraz askori gustatuko litzaiguke Pazko Astean ere jai egitea, Aste Santuko oporretatik errekuperatzeko. Baina hori ez dago edonoren esku. Pazko Astean ere jai egin baduzu, zorionekoa zu eta ongi etorri berriro eguneroko errutinara.

## ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

# Usain arraroetara ohitzen



Aste Santuko jai egunak motz gelditu zitzaizkidanaren sentsazioa oraindik barruan darabilkit jira eta bira. Ikasle izateak bai baitu bere abantaila xumea, bi asteko oporraldia izan ohi baita garai honetan. Langileok aldiz, 5 egunekin konformatu behar, baina... Lana dugula eta ezin kexatuko gara ezta? Eguraldiak ez zigun askorik lagundu, kanpora joandako pribilegiatuek ere ez baitzuten eguraldi onaren berririk izan, non ezkutatu ote zen eguzkia? Krisiaren kulpa ote hau ere?

Bere aztarnak nonahi topatzen ditugu eta egoera honek ez du usain honik, baina gure auzoan usain arraroetara ohitzen hasiak garenez, zer esango dugu ba guk? Noizbehinkakoa zena, berriro ere, ohitura hasi da izaten, ohitura txarra ordea. Honek ez dakar ezer onik, urteak aurrera doaz eta gure bizitzen parte bilakatuz gure osasuna ere kaltetzen ari ote da? Oraindik ofizialki ez dirudi ala denik, baina bitartean lainoa egunero daukagu etxe aurrean.

# Aginagako erriberako bidea luzatu eta hobetu egingo da

**Aginagako erriberako bidea luzatu eta hobetzeko proiektua behin betiko eta aho batez onartu zuen udalbatzak, martxoko osoko bilkuran. Egitasmoa jendaurrean egon den epean, bi erreklamazio aurkeztu ziren. Biak aintzakotzat ez hartzea erabaki zuen udalbatzak.**



Hala erabaki zen martxoko plenoan, ahobatez (argazkia: xingola).

Erabaki horren ondorioz, egitasmoak eragindako ondasun eta eskubideak "okupatu eta eskuratu beharra" deklaratuko du Udalak, "desjabetu eta aldi berean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko" . Horrez gain, "Nahitaezko Desjabetze Legeko 24. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eragindako ondasun eta eskubideen titularrekin adostasuna eskuratzen" edo "elkarren arteko Baliospen Akordioa lortzen" saiatuko da Udala. Eragindako ondasun eta eskubideen prezioa eta balorazio irizpideak, Eraiki SL enpresak eginiko balorazioaren araberakoak izango dira. Horren berri titularrei banaka emango zaie.

# Hilerriko 6. loteko hilobien gaineko eskubideak esleitu dira

**Hilerri berriko Altzifrea kaleko 13 hilobiren gaineko eskubideak herritar desberdinei esleitu dizkie Udalak, martxoaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran udalbatzak aho batez hala erabaki ostean. Mertxe Aizpurua alkateak zehaztu zuenez, esleipena datozen 50 urteetarako izango da. Udal diktamenean gogorarazten denez, "eskatzaile denak lizitazioan parte hartzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu dute, beraz, ez da inor baztertu". Jendaurrean egondako hamar eguneko epean, inork ez zuen erreklamaziorik aurkeztu.**

Bestalde, iazko abenduaren 22an burutu zen ezohiko osoko bilkuran, hilerri berriko erregimen eta funtzionamendurako araudiaren 4. aldaketa hasieraz onartu zuen udalbatzak. Erabaki hura orain bertan behera utzi du udalbatzak, aho batez. Alkateak martxoaren 27ko saioan argitu zuenez, erabaki hura hartu eta jendaurrean egon zen epean, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak idatzi bat aurkeztu zuen. Aldaketa hura legearekin bat ez zetorrela ikusita, aipaturiko aldaketa bertan behera uztea proposatu, bozkatu eta aho batez onartu zen azken osoko bilkuran.

## Desjabetzeak eteteko eskaera, finantza entitateei

Etxebizitza hipotekei aurre egin ezin dioten bezeroen zorra kitatzeko, desjabetze bidea eten; egoera ekonomiko larrian dauden familiei eta lehen etxebizitza kasuetarako, etxebizitzaren lagapena ordainketa kontzeptuan onar dadila; eta azkenik, zorra txikiagoa denean finantza-entitateak hartuko du etxebizitza eta bezeroak etxebizitza horretan jarraituko du alokairu sozial batekin irtenbide moduan. Aurrerago bezeroaren egoera aldatzen denean berrerosketarako aukera izango du.

Hiru eskaerok biltzen ditu, martxoaren 27ko osoko ohiko bilkuran Usurbilgo Aralarrek aurkeztu zuen mozioak. Aho batez onartu zuen udalbatzak.

## Alokabide eta Udalaren arteko hitzarmena, berritua

Gernika 13 ibilbidean kokatu eta Maixu etxe izenez ezaguna den Agerialde ondoko eraikineko udal jabetzako etxebizitzen harira, Alokabide eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetza hitzarmenaren eranskin berria onartu da, gehiengo osoz. Udal ordezkari guztiek aldaketa honen alde bozkatu zuten martxoko bilkuran, Hamaikabatek izan ezik, aurka agertu baitzen. Erabaki honen bidez, alokairuko etxebizitza hauen 2012rako kudeaketa-ordainsariak eguneratu eta berriki alokairu sozialera bideratu den 1. eskuineko etxebizitzaren gestioa, lankidetza-hitzarmen horretara gehituko du Udalak.






# Udalbatza, lan erreforma berriaren aurka

**Usurbilgo Aralarrek eta Bilduk espainiar gobernuak onarturiko lan erreformaren aurkako mozioa aurkeztu zuten martxoaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran, greba orokorraren bezperatan hain zuzen. Lau puntuko testuan adierazten denez, "lan-erreforma salatu nahi dugu, enpresa-kudeaketa eskasaren eta ekonomia-eredu okerren ondorioen zama guztia langileen bizkar gainean utzi nahi duelako". Aipatu lan erreforma, ahalik eta azkarren indargabetzea eskatzen diote espainiar gobernuari eta "Lan Harremanen Euskal Esparrua indarrean jartzea eskatzen dugu, lan-merkatua arautu behar duten legeak erabakitzeko aukera euskal herritarroi emango diguna".**

Azkenik, herritarrak martxoaren 29rako deitua zegoen greba orokorrean parte hartzera deitzen zituen Bilduk eta Aralarrek aurkezturiko mozioak. PSE-EE alderdiko bozeramaile Ricardo Crespo zinegotziak proposatuta, puntuz puntu bozkatu zuten mozioa.

**DENEN ONERITZIAREKIN**

"Lan-erreforma salatu eta Espainiako Gobernuak harturiko erabakia indargabetzea eskatu zuten ahobatez"

Modu horretan, aho batez onartu ziren lehen bi puntuak; lan-erreforma salatu eta espainiar gobernuak harturiko erabakia indargabetzea eskatzen zutenak hain zuzen. Lan Harremanen Euskal Esparrua indarrean jartzeko proposamenaren aurrean, PSE-EE-ko zinegotzia abstenitu zen, gainerako udal ordezkari guztiek alde bozkatu zuten. Azkenik, herritarrak grebara deitzen zituen laugarren puntuaren alde agertu ziren Bildu, Aralar eta PSE-EE. Abstentziora jo zuten aldiz, EAJ-PNV eta Hamaikabatek.



UDAL ORDEZKARIAK, MARTXOAREN 27KO PLENOAN.

### "Eraso bortitza da"

Aipatu mozioak salatzen duenez, "langile kopurua igotzeko aitzakiaren azpian, erreformaren benetako asmo bakarra ezkutatzen da; soldatak eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak murriztea". Kaleratzerakoan langileen eskubideak muturreraino murriztu nahi dituztela gaineratzen dute. Zehazten dutenez, espainiar gobernuak "doako kaleratze askea berrezarri du kontratuko lehen 12 hilabeteetarako, ia enpresa guztiek, %99,23k zehazkiago, erabili ahal izango dutena". Enpresaburuei pizgarriak eman dizkiete eta "urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordaineko kaleratzea" orokortu dituzte. Horrez gain, "erreforma honek ezerezean utzi nahi du negoziazio kolektiboaren bitartez orain artean lortutako guztia. Horretarako, langileen ordezkariei eskuak lotu dizkie patronalaren aurrean".

Eta ohartarazten dutenez, "erreforma ez da horretan geratuko. Gazteei ere eraso egingo die beste behin, batetik, gazteentzako prestakuntza-kontratua 33 urtera arte luzatuko duelako, 481 euroko soldatarekin, eta, bestetik, enpresei gizarte-kotizazioak barkatuko dizkielako". Laburbilduz, Usurbilgo Aralar eta Bilduren esanetan, "erreforma hori langileen eskubideen aurkako eraso bortitza da".

### Bateragune auzikoak aske uztea eskatu du udalbatzak

Espainiako Auzitegi Gorenak Bateragune auziko epaia aztertu behar zuen egunaren bezperan, Ezker Abertzaleko kide Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uztea eskatu zuen udalbatzak, Usurbilgo Aralarrek eta Bilduk aurkeztu zuten mozioaren bidez.

Testua gehiengo osoz onartu zuten, mozioak jasotzen duenez, "herritarren gehiengoaren eskaera kontuan hartuz". Bilduk eta Aralarrek aurkezturiko proposamenean azaltzen denez, "ez Euskal Herritarren gehiengoak, ez eta nazioarteko iritzi publikoak ere, ez du ulertzen eta onartzen, Bateragune auzian kondenatutako bost Euskal Herritar hauek kartzelan izaterik. Ez du onartzen, sortu den egoera berri honen aurrean, espainiar estatuak urrats positiborik eman gabe gelditzerik". Ezker Abertzaleko bost kideak lan politikoa egiteagatik atxilotuak izan zirela gogorarazten dute, "ziklo aldaketa ekarri duen lan politikoari ekiteagatik hain zuzen ere".

# 72 aparkaleku berri egokituko dira Gernika ibilbidean

**72 aparkaleku gehiago izango dira Udarregi Ikastola paretik igarotzen den Gernika Ibilbidean, horietatik lauk ezinduentzako baldintzak beteko dituzte eta oinezko pasabideen ondoan kokatuko dira, Usurbilgo Udalaren web orrialdeak berri eman duenez. Usurbil.net-etik gaineratzen dutenez, "esku hartze eremuaren barruan bidegorri sarea txertatzea" da Udalaren asmoa.**



72 APARKALEKUETATIK 4 EZINDUENTZAT IZANGO DIRA.

Bi helburu nagusiok ere bete nahi dituzte: batetik, "Gernika Ibilbidearen ipar muturreko errotonda eta Galtzaragaina artean ibilgailuentzako bide sarea osatzea" eta "Galtzaragaina eta Gernika Ibilbidearen hegoaldean oinezko lotura berri bat gauzatzea, irisgarritasun baldintzetan".

### Plaza berri bat, Sekañan

Gernika Ibilbideko aparkalekuez gain, beste hirigintza egitasmo bat bideratu asmo du Udalak. Zehazkiago esanda, Sekaña eremuan, hau da, San Inazio auzoaren eta Kale Nagusiaren artean. "Proiektuaren helburu nagusia, eremu hau Usurbilgo espazio publikoen sarean modu eraginkorrean integratzea da", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez. Bertan burutuko diren lanen bidez, "plaza publiko berri bat sortuko da, egonleku, jolasleku, topaleku funtzioak uztartzen dituena". Bestalde, "oinezko ibilbide sare batek eremuaren perimetroko puntu desberdinak eta plaza berria josiko ditu, oinezko komunikazioa hobetuz Kale Nagusia, San Inazio eta Alperro Buru artean". Azkenik, "erdigunean kokaturiko plaza eta bide sare berria inguratuz eremu berde zabala aurreikusi da". Forma eliptikoa izango du plazak.

## Errenta Aitorpena egiteko garaia

**Ogasunarekin kontuak argitzeko garaia heldu da. Apirilaren 11z geroztik abian da, ekainaren 25era arte luzatuko den Errenta Aitorpenaren kanpaina berria. Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrei 351 milioi euro itzuli eta 131 milioi euro jasotzea aurreikusten du, iaz baino 4 milioi euro gehiago. Aurtengo kanpainari begirako berrikuntzarik bada; Ondarearen Gaineko Zerga berreskuratu du Aldundiak, bi urtez indargabetua egon ostean. Bestalde, Aldundiak onarturiko erreforma fiskalak ez du aurtengo kanpainan eragingo, datorren urtekoan baizik.**




AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA ONARTZEKO AZKEN EGUNA: MAIATZAK 4.

Errenta Aitorpenari buruz jakin beharreko guztia Aldundiaren gipuzkoa.net atarian jaso daiteke, edo bestela, 902 100 040 telefono zenbakira deituta. Ohi bezala, abiatu berri den kanpainari begira, badira kontuan hartzeko zenbait data.

-Autolikidazio proposamenak onartzeko azken eguna: maiatzak 4.

-Gainerako errenta modalitateak egiteko epea: ekainak 25.

-Errenta Aitorpen mekanizaturako hitzordua eskatzeko azken eguna: ekainak 8.

## Aitzmurgileko bidea, konpondua

Azaroko lehen asteburuan izandako uholdeek hainbat kalte eragin zituzten; tartean, lurjauzia Andatza bidean, Igartzazabaletik Puelaberrira doan herri bidean, Aitzmurgil parean. Usurbilgo Udalak jada gune honetako kalteak konpondu dituela berri eman du. Lanak, *Obra Construcciones Erga S.L.* enpresak burutu ditu. Duela bost hilabeteko uholdeek beste hainbat kalte eragin zituzten, herri-bide, udal azpiegitura edota altzarietan. Udalak web orri bidez zehaztu duenez, “400.000 euro baino gehiagoko galerak izan ditu bere ondasunetan”.

# "Ausartu zaitez!" gida-liburua kaleratu du Juanjo Lertxundik

**Ez zirudien erraza, baina erronka jartzera ausartu eta bete du. Emaitzarekin gustura da Juanjo Lertxundi usurbildarra. Yoga irakaslea da bera, terapeuta transpertsonala. Bere ibilbidea islatu eta norbere bizitzaz hausnartzeko gonbita luzatzen duen gidaliburu irakurterraza argitaratu berri du, "Ausartu zaitez!" izenekoa. Merkatuan da jada. Liburua, norbere ametsak egi bihurtu eta norberak bere norabidea hautatzen laguntzeko gida modukoa dugu.**



YOGA IRAKASLEA DA ETA HAU DU BERE LEHEN LIBURUA.

**NOAUA! Izenburuak egilearen isla du, esperientzia berri bat izan da zuretzat liburu hau idaztea?**

**Juanjo Lertxundi.** Asmo hau aspalditik nuen buruan, baina ez nintzen idaztera ausartzen. Publikatzea ezinezkotzat jotzen nuen. Idatzi nuen, nahiko polita gelditu zen, editorialera bidali eta argitaratu dute.

## JUANJO LERTXUNDI

"Garrantzitsua da jakitea bizitzan zer lortu nahi dugun"

**N. Zeure lana, gidaliburu bezala definitu liteke?**

**J. L.** Neure esperientzia azaltzen du. Hausnarketa egiteko bidaia moduko bat da. Bakoitzari ukituko dio zerbait. Jartzen dudan adibidea da, askotan mugikor edo telebista bat erosten dugunean, gidaliburuekin datozela, bere ezaugarri guztiekin eta gure arabera erabil ditzagun. Umiltasunez, liburu hau gidaliburu bat da; gu jaiotzen gara, gure gorputz fisikoa, emozionala, eta mentala ematen dizkigute eta guk ditugun tresna hauek nola erabili gure bizitzaren jabe egiteko. Neure ustez, gehiengoak zoriontasuna, maitasuna eta arrakasta izan nahi ditu bere proiektuetan. Denok ditugu geure ametsak, geure proiektuak eta proiektu horiek gauzatzeko, aurrera eramateko jakitea zein diren gure lanabesak eta geure mugak.

**N. Liburu honek pistak ematen dizkio, bide bat jorratu nahi duenari?**

**J. L.** Bidaia antzeko bat da, gelditu, hausnartu eta konturatzeko nola funtzionatzen dugun. Nola izan garen programatuak eta geure helburuak lortzea zerk mugatzen digun ikusi eta aldatzeko aukera dagoela jabetzea. Neuretzat, ardura beti geure esku dago.

**N. Aldatzeko, ausarta izateko mezua helarazten duzu liburuaren bidez. Horretarako lehenik jabetu egin behar. Zein pauso proposatzen dituzu?**

**J. L.** Lehenbizi gelditu egin behar dugu eta konturatu nola funtzionatzen dugun eta horren arabera, garrantzitsua da jakitea bizitzan zer lortu nahi dugun. Askotan ez baitakigu nora joan nahi dugun. Horregatik ageri da iparrorratza liburuko azalean. Norabidea, jakitea bizitzan nik zer lortu nahi dudan, pertsonalki, alor familiarrean, profesionalki. Zer lortu nahi dut eta hor enfokatu nire tresna guztiak. Nik dauzkat neure tresnak, neure sinesmenak, balio didana ondo, eta mugatu edo blokeatzen didana gainditzea da kontua, azkenean zoriontsu izan, gure helburuak lortu eta arrakasta izateko.

## "Dena ez da beltza"

**NOAUA! Zenbait poeten hitzak ere jaso dituzu liburuan, Artzerenak tartean.**

**Juanjo Lertxundi.** Liburua lasai irakurtzeko eta hausnartzeko da. Eta bera usurbildarra eta pertsona berezia, oso interesgarria iruditzen zait eta bere bi olerki sartu ditut. JoxAnton Artzerenak, Jon Maiarenak, Alaitz eta Maider, Delirium Tremens… Zeresan asko dute.

**N. Liburu honek zer leku bete dezake garai aldakor hauetan?**

**J. L.** Bakoitzak bere ondorioa aterako du, baina behintzat esperantza transmititzen du. Ardura kanpoko jendearengan utzi beharrean, aldaketa baita ere aurrena neure aldetik hasi behar duela diot. Dena ez da beltza. Lainoekin dena beltza ikusten dugu askotan, baina horiek ere denak pasatzen dira. Krisiarekin ere badirudi erru guztia politikariena dela, bankeroena. Beraiek beraien erantzukizuna badute baina nik neurea ere badut. Bakoitzak bere ardura hartu behar du, eta behintzat besteei ardura guztia utzi gabe, nik behintzat neure eskuetan egin dezakedana neronek egingo dut.

# “Neuretzat baliagarria izan dena liburu honetan islatu nahi izan dut”

**NOAUA! Usurbildar batzuek behintzat, Santuenean yoga irakasle zarelako ezagutuko zaituzte. Zure ibilbideari loturiko liburua da hau?**

**Juanjo Lertxundi.** 2000. urtean hasi nintzen yoga praktikatzen. 2005ean yoga irakasteko ikastaroa egin nuen eta ordutik gaur arte yogako klaseak ematen aritu naiz Aian, Usurbilen, Donostian eta Altzon. Donostiako Grosen neure zentroa dut, Gausartu. Hor ere yogako klaseak, meditazioa, tailerrak ematen ditut. Iaz Madrilen, terapeuta transpertsonala izateko masterra egin nuen. Neuretzat baliagarria izan dena liburu honetan islatu nahi izan dut.

**N. Hausnarketa bultzatzea ere proposatzen duzu. Yoga, bide honetan, beste tresna bat da?**

**J. L.** Dena lotua dago. Badirudi beti erlojuz kontra gabiltzala eta orduan,yogara doazen guztiek denbora bat hartzen dute beraiekin egoteko. Behintzat yogaren helburua hori da, gelditzea, konturatu nik nola funtzionatzen dudan eta jabe egitea. Ikastea ondo gestionatzen, emozio eta pentsamendua.

**JUANJO LERTXUNDI**

> “Jendea ari da esnatzen, edukitzea ondo dagoela baina garrantzitsuagoa dela gu izatea”

**N. Bizi garen gizarte erritmoan, ikasle faltarik ez duzue izango, ezta?**

**J. L.** Beti enfokatuak gaude gauzak izatera, eta niretzat jendeak garrantzia gehiago ematen diogu izateari. Krisiarekin gertatu dena da, kontsumismoan bizi garela, beti eduki eta eduki, eta jendea ari dela pixka bat esnatzen, konturatzen, edukitzea ondo dagoela baina garrantzitsuagoa dela gu izatea. Jendea esnatzen edo konturatzen ari da, bizitzeko gure gauzak behar ditugula baina aurrena ni naizela eta gero, behar ditugun gauzak.



“GAUSARTU” IZENEKO ZENTROA KUDEATZEN DU DONOSTIAN.

**N. Norbere burua ezagutzea ezta?**

**J. L.** Nor den eta nora joan nahi duen. Azken finean, oso sinplea da, baina guztia geuk konplikatzen dugu. Gelditu, konturatu gure prozesuaz, gure pentsamendu eta emozioak zeintzuk diren eta hori guztia gestionatzen ikastea da kontua. Berez oso sinplea da, baina gero praktikatzean dago gakoa. Gelditu, arnasa hartu, konturatu eta ia, hemendik ondo noa? Beti dago zuzendu eta aurrera jarraitzea.

**N. Hain esperientzia ona izanda, liburu berri bat idazteko asmorik baduzu?**

**J. L.** Gai batzuetan gehiago sakonduko nuke, baina liburua ideia orokor bat hartzeko ondo dago. Gustura gelditu naiz. Bigarrena? Aurrerago agian bai, baina momentuz gustura nago, nahiko lana badut. Ateak ez ditut ixten bigarren liburu bat egiteko. Ikusiko dugu.

## Liburua dendetan salgai

**Izenburua:** “Ausartu zaitez!”.
**Egilea:** Juanjo Lertxundi.
**Editoriala:** Txertoa.
**Argitaratze data:** 2012ko martxoa.

## “Kritika ona jaso du”

**NOAUA! Zer moduzko esperientzia izan da?**

**Juanjo Lertxundi.** Esperientzia oso atsegina izan da. Garbi nuen zer idatzi nahi nuen, oso garbi nuen baita eskema. Koldo Mitxelenara joan eta idazten jarri nintzen. Oso atsegina izan da, asko gozatu dut eta ez da izan halako esfortzua. Editorialak publikatzea baloratu du. Irakurri dutenen aldetik kritika ona jaso du liburuak. Pertsonalki oso gustura nago, helburua beteta.

**N. Merkatuan dago jada?**

**J. L.** Dendetan salgai dago jada. Gonbidatzen dut jende guztia, ausartzeko erostera. Irakurri eta hortik zerbait baliagarria hartzen badute, ondo. Neure helbidea ere liburuan dago, iritzia eman, edo liburua baloratu nahi duenarentzat.

**N. Irakurritakoa gero praktikan jarri beharko da?**

**J. L.** Ariketa batzuk jarri ditut, etxean egiteko. Oso ariketa errazak dira, praktikan jartzeko. Energia transmititzen du.




TXERTOA ARGITALETXEAREKIN PLAZARATU DU LIBURUA.

# Jai Batzordearen bilera, apirilaren 25ean

**Santixabelak ospatzeko bi hilabete pasatxo falta diren honetan, jaietarako prestaketa lanak abian dira. Jai Batzordeak amaitu berri den oporraldiaren aurretik burutu zuen lehen bilkura, martxoaren 28an hain zuzen.**



DAGOENEKO EGIN DUTE LEHEN BILERA, ASTE SANTUA BAINO LEHEN.

16 bat lagun bertaratu ziren eta bilgunetik adierazi dutenez, “ekintza gehientsuenak kokatzen hasi gara”. Ekitaldion berri emango duen egitarauaren diseinua lehiaketa bidez aukeratuko da aurtengoan ere.

### Potxoenean izango da bilera

Badira azkenik, Santixabeletako antolaketa lanei lotuta, kontuan hartu beharreko bi data. Batetik, apirilaren 19ra arteko tartea zutela herri eragile desberdinek, antolatu asmo duten ekintzaren aurrekontua eta txupinazorako proposamena Udalera eramateko. Bestalde, Jai Batzordeak bigarren bilkura baterako hitzordua finkatua du; apirilaren 25erako, 18:30etan Potxoenean.

### Bertsio gaua

Iaz, Santixabelak agurtzeko herriko musika talde desberdinetako kideak partaide izan zituen bertsio gaua ospatu zen Askatasuna plazan kokaturiko txosnetan. Antolatzaileak, ITAYA Gazte Asanblada eta Kaxarekos, esperientzia errepikatzekotan dira. Ekitaldia prestatzeko lehen bilera burutzekoak ziren aste hasiera honetan Harane futbol zelaiko herriko musika taldeen entsegu lokaletan.

NOAUA!-ko web orri bidez, ekimenean parte hartzera deitu dute. “Bertsio gaua benetan partehartzailea izatea gustatuko litzaiguke, beraz, musikari zein musikazaleei gonbita luzatzen diegu bertaratu daitezela abestiren bat jo edo oihukatu nahi badute. Lehengo urtean gogoz gelditu bazinen eta musika txute baten beharra baldin baduzu, hurreratu zaitez Haranera! Gora jai herrikoi eta partehartzaileak!”, adierazi dute antolakuntzatik.

# Oporretan ere, kirola eginez dibertitzen

Usurbil FT-rekin oporraldiko aisialdi denboran kirola eginez primeran pasatzeko aukera izan dute Lehen Hezkuntzako lehen mailatik bosgarren mailara arteko ikasleek. Zenbait ekintza burutu ahal izateko eguraldia muga izan badute ere, Oiardo Kiroldegian edota frontoian begiraleek proposatu dizkieten jolasen bidez, ez zuten Pazko Astean zehar aspertzeko betarik izan. Ondoko irudia, Usurbil FT-k antolaturiko “Aste Santuan kirola eginez” ekimenaren erakusgarri.



USURBIL FT TALDEKO GAZTEEK EZ DUTE EGURALDIA LAGUN IZAN.

## Jaietarako egitarau lehiaketa

Jaietako egitarauaren diseinua, urtero moduan lehiaketa bidez erabakiko da. Txapelketa abian da jada. Parte hartzeko asmotan direnek, lanak aurkezteko maiatzaren 25era arteko epea dute. Oinarrien inguruko informazioa Potxoenean jaso daiteke. Egitarau lehiaketari buruzko zehaztasun gehiago, datorren astekarian.

Poxpolin MERTZERIA 943 36 82 06 Zubiaurrenea 3, baxua

Javier Orbegozo ·ITURGINTZA ·GASA ·BEROKUNTZA 659 602 789 943 37 29 37 Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL

izAgirre ELEKTRIZITATEA 943 36 50 95-609 06 81 11 izagirrelektrizitatea@hotmail.com Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Andoni Errazkin Xukin igeltseritza orokorra Barne eta kanpoko lanak USURBIL 663 08 76 71 • 943 24 34 65

# Independentzia, ikurrina edota euskara, egunotan mintzagai

**Nafartarrak taldekoek aste hasieran abiatutako hitzaldi zikloak egunotan jarraituko du, ikurrak, euskara eta independentziari loturiko gaiekin. Saioak, jarraian aipaturiko egunetan burutuko dira, 19:00etatik aurrera Sutegin. "Gartxot" filmak borobilduko du apirilaren 27an, Nafartarrak taldekoek antolaturiko ekitaldi sorta:**


LUIS MARI MARTINEZ GARATEK ESKAINIKO DU LEHEN HITZALDIA.

**Apirilak 20, ostirala: "Ikurriña-nafar bandera: mahai ingurua"**
**Hizlaria:** Luis Mari Martinez Garate.
**Edukia:** gure herrian historikoki hainbat sinbolo garatu dira; batzuk oso berriak dira, berriki asmatuak, gure errealitatea kontutan hartu gabe. Baina sinboloak ez dira neutroak; badaukate beren esanahia; eta esanahi horrek lotura handia du identitatearekin; beraz, ondarea dira... Gai honek ikuspegi asko ditu; eta azken urteetan ikusi dugu ikurrina agertzen zen tokian, bandera nafarra agertzen hasi dela; ze eztabaida dago bandera hauen artean?

**Apirilak 24, asteartea: "Independentziaren bideragarritasun ekonomikoa"**
**Hizlaria:** Oscar Arantzabal.
**Edukia:** 2008an hasi zen sistema kapitalistaren finantza krisiak kolokan utzi du orain arteko ekonomia eredua. Nazioarteko egoera berri honetan, paradigma ekonomiko berriak estatu txikien alde jokatzen du. Krisiak subjektu sozioekonomiko bakoitzaren indar-guneak eta ahulguneak azaleratu ditu. Irtenbiderako ardatz diren nazioartekotzean eta berrikuntzan, Euskal Herria beste batzuk baino hobeto dago dio Arantzabalek.

**Apirilak 26, osteguna: "Euskara, Hizkuntza bat bere bakardadean"**
**Hizlaria:** Pako Aristi.
**Edukia:** Bi hizkuntza hegemonikoen erdian, menpeko hizkuntza baten egoera petrala bizi du egun euskarak. "Normalizazioa"ren etiketaz mozorroturiko anti-politika baten ondorioz, piramide sozialean desagertzen ari da, eta laster kaletik ere bai. Botere politiko propiorik gabe euskara "ad eternam" izango da mendeko hizkuntza, hizkuntza morroitua, sinbolikoa bere hutsean, fosil bihurtzeko bidean.

**Apirilak 27, ostirala: "Gartxot"**
**Zuzendariak:** Asisko Urmeneta eta Juanjo Elordi.
**Edukia:** Bardo deitzen zaio herriaren oroimena eta kultura gordetzen duen kantariari. Eta horixe da Orreagako abade berriak nahi ez duena. Hargatik, Gartxot, bertako bardoa, deserriratu eta Mikelot, haren semea bahituko du latinez kantatuko duen fraide bihurtzeko. Baina Mikelotek ihes egingo du eta berriro hasiko da kantuan aitarekin, herriz herri. Tragedia XII. mendean...
22:00etan Sutegin. Sarrerak: 5 euro.

## Maialen Lujanbioren hitzaldia Artzabalen

Bota Punttuba Bertso Eskolakoek bertsolaritza munduko aurpegi ezagun bat gonbidatu dute, apirilaren 23an Artzabalera; Maialen Lujanbio. Hernaniarrak hitzaldia eskainiko du, aipatu moduan, datorren astelehenean, arratsaldeko 19:30etan hasita. "Gaiaren trataera, bertsolarien aldetik" horri buruz jardungo da hizlari lanetan. Bertso Eskolatik ekitaldia doakoa eta irekia dela ohartarazi dute.


DATORREN ASTELEHENEAN ARRATSALDEKO 19:30EAN.

## Datorren larunbatean, Kantu Jiraren saio berria

Hilabeteko azken larunbatean elkartu ohi dira Kantu Taldeko kideak. Ohi bezala, deialdia irekia da.


19:00ETAN ABIATUKO DIRA MIKEL LABOA PLAZATIK.

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
✆ 943 370 008

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

# "Udaberria iritsi da"

**Esan zuen gure hezitzaileak. Gelako neguko apaingarriak kendu eta urtaro berri honek ematen duen ilusioarekin gela apaintzen hasi ginen. Loreak, erleak, tximeletak, txoriak, eguzkiak…guztiak zintzilikatu genituen. A ze poza!! Gelari beste ukitu alaiago bat eman genion. Argitu egin zela esan genezake.**



HAUR ESKOLAKOAK, KALEZARREN PASEATZEN.

Dakizuen bezala eguraldi polita dugunean soka hartu eta Usurbilgo parke eta kaleetan zehar ibiltzen gara. Asko gustatzen zaigu paseatzera joatea, gauza asko ikusten eta ikasten ditugu: langileak eta herritarrak agurtu (ikusi behar zenituzkete beraien irribarre goxoak), herriko parkeetaz gozatu, belazeetan korrika eta zilipurdika ibili, loreak jaso, harritxoak zuloetan sartu, txirrindulariak animatu… Baina gehien gustatzen zaiguna herrian ditugun animaliak bisitatzea da. Gainera, Kalezarren pila bat aurki ditzazkegu. Hauen artean, oilo tripontzi xamar batzuk aurkitzen dira jana eramaten diegunean korrika hesira gerturatzen direnak. Ardiak ere hor ditugu, gure aurretik apain apain pasatzen dira, ze emozio!! Beeee, ardiak!! Deika aritzen gara eta tarteka beraien txabolatik irteten dira. Noizean behin maldan behera jaisten ere ikusten ditugu, belar goxo eta freskoaren bila, beraien arkumetxo eta guzti.

Ahuntza, tximeletak, txakurrak..., eta belarria erne jarriz gero udaberria esnatzen ari den honetan, zuhaitz adarretan dabiltzan txoritxoen kantuak ere entzuten dira. Baina adi adi egon behar zarete!

Lagun berri bat ere etorri zaigu Kalezarrera. Astelehen batean lehiotik begiratu eta a ze ezustekoa, zaldia!! Dudarik gabe, ogi zaharrez betetako boltsa prestatu eta hura ezagutzera joan ginen. Ile horia eta marroia da eta korrika saio ederrak egiten ditu.

Belarra jatea utzi eta guk emandako ogia krix-krax ziztu bizian jan zuen. Laztan goxoak ere gustatzen zaizkio, denoi bezala. A ze poza!! Zaldia gure laguntxo berria da eta ilusio handia egiten digu hura han ikusteak.

Haur Eskolako haurrek asko maite dugu gure zaldia eta askotan galdetzen dugu berarengatik. Gelako leihotik begiratu eta itzaletan lasai dagoela ikusteak guretzat ez du preziorik.

Eskerrik asko guzti honetaz gozatzeko aukera ematen digutenei eta nola ez UDABERRIARI!!!

NegUaren
onDoren
dAtor
Bere
Eguzki
epelaRekin
loRez
jantzIta
kantAri.

**Haur Eskolako haurrak**

## Gaztelekua eta Ziortza, jai giroan

Egunaren zati handi batean eguraldiak lagundu ez zien arren, euren planak ez zituen zapuztu. Primerako giroan murgildu ziren joan den astean, Gaztelekukoak eta Ziortzak antolatu zuten II. Gazte Egunean. Jokoak edota dj emanaldia tartekatu zituzten, aurtengoan bi egunetara luzatu den egitarauan.

Oka erraldoi batean jolastuz hasi zuten apirilaren 12an ospaturiko jaia. Eguna euritsu esnatu zen arren, frontoian bildu eta primeran pasa zuten Gaztelekuko eta Ziortzako kideek. Dadoa bota eta proba desberdinak gaindituz helmugara heldu behar zuten. Beste zenbait jolasekin batera, bazkaldu, eta Dj emanaldi batekin amaitu zuten eguna.

### Eskubaloi txapelketa

Bigarren edizio honetan, bi egunez ospatu da Gazte Eguna. Ziortzak eta Gaztelekuak antolaturiko jaiarekin batera hain zuzen, eskubaloi txapelketa ospatu zen Oiardo kiroldegian joan den larunbatean. Gaztelekuko gazteak goiz pasa aritu ziren eskubaloian. Gurasoak ez ziren animatu azkenean.



APIRILAREN 12AN OSPATU ZUTEN GAZTE EGUNA.

ANTXON QUIROGA ITURRALDE
-Frantsesean diplomatua, Hizkuntz Eskola Ofizialean.
-Diplômé de l'Alliance Française au DALF niveau supérieur C2, français langue étrangère
-Diplomatua UNED-en, frantsesa atzerriko hizkuntzako irakaskuntzako aditu gisa.
- Internet eta Skype bidezko klaseak (1 eta 2 mailak)
-Espezialitatea: hastapenak/hasiberriak, hobekuntza, elkarrizketa, hizkuntz adierazpenak, negozioetarako frantsesa, hizkuntza frantsesaren egitura.
a.quiroga@ya.com 609754799

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Aste Kulturala Zubietan

**Usurbilgo udalaren laguntzarekin, Aste Kulturala antolatu dute datorren astean Zubietan. Hauxe da igorri diguten egitaraua.**

### Apirilaren 23a astelehena

Ikastolan goizez, 9:30tan Porrotx-i elkarrizketa.

Arratsaldez, panela margotu ikastolan.

Parkean 17:00ak inguruan jokoak: txingak, lokotxak, zaku karrera, sagar eta aulki jokoa, panuelitoa,... Buruhaundiak.

### Apirilaren 24a asteartea

Ikastolan arratsaldez, 14:45ean txotxongiloak.

Parkean, 17:00ak inguruan, filma eta globo tailerra.

### Apirilaren 25a asteazkena

Ikastolan goizez, 10:00etan "Bideko Heziketa".



PORROTX IZANGO DA ESKOLAN.

Parkean, 17:00ak inguruan, "Altxorraren bila".

### Apirilaren 26a osteguna

Parkean, 17:00ak inguruan, Largabistaren antzerkia eta txokolatada.

### Apirilaren 27a ostirala

Parkean, 17:00ak inguruan, puzgarriak, espuma eta apar jaia, buruhaundiak.

## Zubietako Udako Txokoetan izena emateko epea ireki da

Txokoak 3 urtetik (2009 urtean jaiotakoak) 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude. Uztailean eta abuztuan Eskola Txikian elkartuko dira eta ordutegia hau izango da: 9:30etik 13:30era.

Izen emate orriak ikastolan eta Barazar Tabernan eskuratu daitezke eta Udaletxeko buzoian bota beharko dira (Alamandegin).

### Azken eguna, maiatzak 11

Izen emateko azken eguna maiatzaren 11 izango da. Edozein zalantza izanez gero deitu telefono hauetara: Josune (636 719 301), Izaskun (618 700 479).

Kuota izena ematen duten haurren kopuruaren arabera zehaztuko da.

# Hamabi urtez, Europan barrena bidaiatzen

**Joan den martxoaren 26an Osinalde industrialdera gerturatu zenak, ezohiko bisitari batzuekin topo egiteko aukera izango zuen. Euren etxetxo, garraiobide zituzten animalia eta guzti, hamarkada batetik gora herrialde desberdinetatik barrena bidaiatzen dabilen familia holandar batekin hain zuzen.**

Euren web orrialdeak dioen moduan, ordura arte euren bizimodua alde batera utzi eta 2000. urteaz geroztik bidean dira Europan barrena, behar duten guztia zaldiek garraiaturiko bi etxetxoetan daramatela. Familia bereko lau kide, ama, aita eta bi alabak hamabi urte daramatzate, sorterri duten Holanda atzean utzi eta herrialde desberdinetatik barrena bidaiatzen. Euren bidaian inguruotatik igarotzen ari zirela, geldialditxoa egin zuten Usurbilen, joan den martxoaren 26an. Egun hartakoa da atera genien argazkia. Frantziara joateko asmoa zuten, bertan geratu eta urteotako bizipenekin liburu bat idaztekotan dira. Euren ibileren berri, irudien bidez web orrialde honetan jaso dute: www.roulotte-papillotte.com



OSINALDE INDUSTRIALDEAN IZAN ZIREN EGUN BATEZ, ATSEDEN HARTZEN.

aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera

# udajolas

**udaleku** irekiak

**Usurbilen erroldatutako 4-12 urte (HH3-LH6)** bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago.

**Uztailaren 3tik 27ra**
**Ordutegia: 09:30-13:30**

**Gehienezko plaza kopurua 135 umekoa** izango da. Plaza kopuruaren %5a ezinduentzako erreserbatua egongo da. 135 ume baino gehiago apuntatuko balira, **zozketa egingo litzateke apirilaren 27an, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.**

Izen emateko epea: **apirilaren 23tik 26ra** (biak barne), 16:00etatik 18:00etara, Noaua!ko bulegoan. Izen ematerakoan, izen emate orria ekarri behar da.

Apirilaren 27an, Udajolasen onartu eta baztertuen zerrenda jarriko da Noaua!ko bulegoan. Behin plaza ziurtatua dagoenean, eta **maiatzaren 13a baino lehenago egingo da dirusarrera.** Data hori pasata egiten diren ordainketak ez dira onartuko eta plaza galduko da. **Ordainagiriaren kopia Noaua!ra eraman behar da.**

Ordainketa EUSKADIKO KUTXAko kontu honetan egin eta bertan haurraren izen-abizenak adierazi:
3035 0140 34 1400025811

**Kuota: 77€**

**Famili ugaria: 62€** (txartelaren kopia ekarri behar da)

Noaua!
www.noaua.com

Usurbil osasuna atez ate

Usurbilgo Udala

# Hotzikara, Gaztearen Maketa Lehiaketako finalean

**Gaztea irrati kateak antolaturiko XXI. Maketa Lehiaketako finalistetako bat, musika talde usurbildarra dugu; Hotzikara hain zuzen. Antton Aranburuk, David Illarramendik, Mikel Olasagastik eta Beñat Arteagak osatzen duten taldea epaimahaiaren erabakiz sailkatu da gainera, azken fase honetarako. Astebete barru jakingo da nor den irabazlea.**



ARGAZKIA: IBAI ARRIETA.

Finala, apirilaren 26an ospatuko da, Bilboko Bilborock aretoan. Bertara joan ezin duenak, ekitaldia zuzenean ikusi ahal izango du streaming bidez Gaztearen web orrian sartuta edota baita ETB3 telebista katean ere. Bere abestietako bat, "Gillotina" izenekoa, asteotan Gazteako web orrian egon da entzungai. Epaimahaiak talde onena, dirutan 3.000 eurorekin eta musika-tresnatan edo musika-ekipamendutan beste 3.000 eurorekin sarituko du. Bideoklip bat grabatzeko aukera ere irabaz dezakete, baita aurtengo Bilbao BBK Live jaialdian zuzenean jotzeko aukera ere. Taldeak pozik egoteko arrazoirik ez du falta, duela aste gutxi hain zuzen, EhrZ musika lehiaketan ere 12 finalisten artean sailkatu baitzen.

# Elkartasun Eguneko errifa zozketako zenbaki sarituak

**Elkartasun Egunean egindako errifen zozketako zenbaki sarituak hauek dira: 039, 163 eta 395. Zenbakion jabeek, Atxega jatetxean, Ardi Beltz garagardotegian eta Txapeldun tabernan bi lagunentzako otordu bana irabazi dute hurrenez hurren.**




GIRO ONEAN OSPATU ZEN ELKARTASUN EGUNA.

Errifa hauek dituztenek, saria jasotzeko apirilaren 21era arteko epea dutela ohartarazi dute ITAYAtik. Horretarako eurekin harremanetan jartzera deitzen dituzte, itaya@euskalerria.org helbidera, sarituaren izen abizenekin mezu bat bidaliz. "Zorionak zozketako irabazleei! Elkartasuna eraikiz, euskal preso eta iheslariak etxera!", adierazi dute gazte asanbladakoek.

## Berriaren aldeko kanpaina: "zure ziztada behar dugu"

Berria egunkariari laguntzeko "Zure ziztada behar dugu" lelopean abiatu zen kanpaina aurrera doa eta momentuz hauek dira Usurbilen eman diren ziztada kopuruak: Usurbilen 16 ziztada, Aginagan 7 ziztada eta Zubietan 3 ziztada.

### Trukean gauza ugari

"BERRIAlaguna egiten bazara, Berria Taldearen jarduera eta erabaki nagusien informazio osoa izango duzu, BERRIA PDFn doan jasoko duzu eta deskontuak izango dituzu Berria Taldearen produktuetan. Horretarako www.berria.info/berrialaguna bisitatu edo 943 30 43 45 telefono zenbakira deitu", adierazi digu Usurbilgo sustengu taldeak.




BERRIA LAGUNTZEKO KANPAINA IRAGARTZEN DUEN TXARTELA.









# Azpeitia-Usurbil, mendian barrena




**Andatza Mendizale Elkartetik eginiko deialdiarekin bat eginez, Azpeitia-Usurbil ibilbidea osatu zuten 21 mendizalek. Nabarmentzekoa da irteerak zer nolako harrera izan zuen, giro hotz eta euritsua egin baitzuen aurreko igandean. Irteeraren kronika eta argazki gehiago, andatzamendizale.info web orrialdean.**

# Maiatzean hasiko da Paleta Txapelketa

**Maiatzean hasiko da Usurbilgo Paleta Txapelketa baina izen-ematea ireki berri da. Pilotak antolatzaileek jarriko dituzte eta txuriak eta beltzak erabiliko dira, puntu horidunak, eta partidak 25 tantuetara izango dira. Usurbilen jokatuko da baina euria egingo balu, Aginagara joateko aukera egongo litzateke. Izena emateko bi aukera daude: Txiriboga tabernan edo 626110923 telefonora deituz. Hauek dira ezarri diren baldintzak:**

## Gizonezkoak (paleta goma):

-2 pilotarien izenak eman behar dira. Partiden egutegia hasieratik zehaztuta geratuko da eta ezingo da inolaz ere aldatu. Horretarako izango dira ordezkoak.

-Izen ematea: 20 euro.

-Partidak: Igande arratsaldetan 17:30etik aurrera jokatuko dira. Maiatzean hasi eta herriko jaietan bukatzeko asmotan.

-Lehiaketa sistema bikote kopuruaren arabera zehaztuko da: datak, taldeak, zerrenda buruak…

-Usurbildarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

-Pilotak antolatzaileek jarriko dituzte eta txuriak eta beltzak erabiliko dira, puntu horidunak eta partiduak 25 tantutara izango dira.

-Euria eginez gero Aginagara joateko aukera egongo litzateke.

-Izena emateko Txiribogan izena eman edo 626110923 telefonora deitu.

-Izena emateko epea apirilaren 30a izango da.

## Emakumezkoak
**(paleta goma edo teniseko pelota):**

-Bi txapelketa desberdin egongo dira: bata gomazko pelotarekin eta bestea teniseko pelotarekin.

-Izena bi txapelketa hauetako batean eman behar da.

-2 pilotarien izenak eman behar dira. Partiden egutegia hasieratik zehaztuta geratuko da eta ezingo da inolaz ere aldatu. Horretarako izango dira ordezkoak.

-Izen ematea: 10 euro bikoteko.

-Partidak: astean zeharreko egunetan jokatuko dira. Maiatzean hasi eta herriko jaietan bukatzeko asmotan.

-Lehiaketa sistema bikote kopuruaren arabera zehaztuko da: datak, taldeak, zerrenda buruak…

-Usurbildarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

-Izena emateko epea apirilaren 30a izango da.

## Usurbilgo Pilota Txapelketa

Aurreko astean hasi zen Usurbilgo Pilota Txapelketa. Ligaxkako lehen partidetan, ez zuten irabaztea lortu usurbildar bikote hauek: Errasti-Urruzola eta I. Zinkunegi-M.Galarraga. Garaipena eskuratu zuten ordea, Lizaso-Erreka eta Katalina-Aizpuru bikoteek (azken hauek, J.Bengoetxea-I. Zinkunegi bikoteari 22-2 irabaziz). Asteburu honetako partidak, hauexek:

**APIRILAK 21 LARUNBATA**
**Usurbilen goizeko 10:00etan, Nagusiak**

Aranburu-Elola / Urretabizkaia-Esnaola
(Lasarte) (Alegia)

Odriozola-Aranburu / Errasti-Urruzola
(Errenteria) (Usurbil)

Ezkurdia-Beraza / Arrizabalaga-Ugalde
(Irurtzun) (Oiartzun)

Iribar anaiak / Gallurralde-Santxez
(Zumaia) (Amezketa)

**APIRILAK 22 IGANDEA**
**Usurbilen goizeko 10:00etan, Nagusiak**

Mendizabal-Lizeaga / Huegun-Goikoetxea
(Usurbil - Hernani) (Alde Zaharra)

Azketa-Atxa / Urruzmendi-Goikoetxea
(Zegama) (Igeldo)

Rodríguez-Intxausti/ I.Zinkunegi-M.Galarraga
(Zumarraga) (Usurbil)

Asteasu-Berroeta/ J.Bengoetxea-I.Zinkunegi
(Gasteiz) (Usurbil)

## Eskubaloiko errifa



Agapito Apariciok bi lagunentzat otordua irabazi du Aginagako Urdaira sagardotegian, Usurbil KE-k antolaturiko errifa zozketari esker. 7.162 zenbakia zuen eta sagardotegirako otordua egokitu zaio. Ohi bezala, eskerrak helarazi nahi dizkiete errifak erosi eta zozketan parte hartzen duten herriko jatetxe zein sagardotegiei.

## Eskubaloia kiroldegian

**2012/04/19, OSTEGUNA:**
SENIOR MUTILAK, KOPA NAZIONALA. **20.00H**
Atez Ate Usurbil - Eibar

**2012/04/21, LARUNBATA:**
SENIOR NESKAK, GIPUZKOAKO KOPA 17.30H
Atez Ate Usurbil - Elgoibar

# Liga amaitu ostean Kopa, senior mailako eskubaloi taldearen hurrengo erronka

**Mailaz igotzea zen euren aurtengo denboraldiko helburu nagusia. Saiatu diren arren ordea, ez da posible izan. Edozein kasutan, eskubaloiko seniorren 2. territorial mailako taldeko entrenatzaile Antonio Castrok datorrenean lortuko dutela argi du. Orain, Kopa lortzeko lehian murgilduta dabiltza.**



SENIORREN BI TALDEETAKO JOKALARIEKIN OSATU DEN TALDEA.

**NOAUA! Aurkeztu iezaguzu aurtengo zuen taldea.**

**Antonio Castro.** 14 jokalari izan ditugu, 3 atezain. 2. territorialean jokatzen aritu gara, urtero moduan mailaz igotzeko gogor lehiatzen, baina ezin izan da izan. Besteak beste, lesioak tarteko.

**N. Denboraldi hasiera oso ona izan zenuten?**

**A. C.** Lehen zatia oso ona izan zen bai, baina bigarrenari dagokionez, badira lanean hasi diren ikasleak, eta badira asteburuetan etorri ezin zutenak. Lesioak ere izan ditugu, denetarik pixka bat.

> **ANTONIO CASTRO**
>
> "Guk lehen mailan egon behar genuen aurten, baina ez zen posible izan"

**N. Ezin izan duzue erronka bete, mailaz igo alegia. Aurreko urteetan ere errepikatu da egoera hau?**

**A. C.** Iaz hirugarren geratu ginen eta kontua da bosgarren sailkatu zen taldea igo zela mailaz. Horrekin asko haserretu ginen. Guk lehen mailan egon behar genuen aurten, baina ez zen posible izan. Federazioan zerbait gertatu zen eta, behean geratu ginen.

**N. Aurtengo helburua ere igotzea zen?**

**A. C.** Bai, urtero saiatzen gara igotzen. Goian kategoria gehiago dago, gehiago ikasten da. Usurbilgo eskubaloiko seniorren goiko taldeak, jendea euren taldera aldez aurretik prestatuta joatea behar du. Gure taldetik beste taldera igo diren jokalariak oso ondo ari dira.

**N. Zer giro duzue taldean?**

**A. C.** Oso pozik gaude jokalariekin, dena ematen baitute. Oso jende jatorra dugu. Entrenamendu saioetara ahal dutenean datoz, lehenbizi ikasketak eta lana baitaude.

**N. Jokalariei dagokionean talde berri bat zenuten aurten?**

**A. C.** Lehengo urtean zeudenetatik lauzpabost igo dira mailaz eta nabari da taldean. Iazko jokalari dezente zeuden. Fitxaketa berriren bat ere bai tartean.

## Kopa jokoan dute, asteotan

Liga amaituta, Kopa jokatzen ari dira. Elgoibar izan zuten lehen aurkaria eta ostegun honetan bertan jokatuko dute Oiardon bigarren neurketa.

## "Oso ondo ari dira lanean"

**N. Nola ikusi dituzue elkarteko zuzendaritzan izan diren aldaketak?**

**A. C.** Zuzendaritza talde berria oso ondo ari da lanean. Mugitzen dira behintzat, gogotsu ari dira, elkartea oso ondo ari dira eramaten.

**N. Ibilbide luzea egina duzu, nola ikusi nahi zenuke eskubaloia etorkizunean?**

**A. C.** Lehen nazional mailan jarraitzea behintzat, jendea bada. Jokalariak amateurrak dira ordea, eta lana edo ikasketak daude tarteko. Bi jokalarik Gasteizen ikasten dute, ostiraletan datoz entrenamendu saioetara eta halere gogotsu aritzen dira.









## Agenda!

### Apirilak 20 ostirala
**"Ikurriña-nafar bandera"** mahaingurua, 19:00etan Sutegin.

### Apirilak 22 igandea
- **Agerraldia frontoian,** 12:30ean.
- **"Buah txabal!"** bakarrizketa saioa, 19:00etan Sutegin.
- **Kontzertua Akerra gaztetxean,** 18:30ean: Humilitate, Haulin´ass, Bajo Presion.

### Apirilak 24 asteartea
**"Independentziaren bideragarritasun ekonomikoa"** Sutegin, 19:00.

## Goardiako farmaziak

**Apirilak 19, osteguna**
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

**Apirilak 20, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 21, larunbata**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

**Apirilak 22, igandea**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

**Apirilak 23, astelehena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Apirilak 24, asteartea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Apirilak 25, asteazkena**
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

**Apirilak 26, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 27, ostirala**
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

**Apirilak 28, larunbata**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

**Apirilak 29, igandea**
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

***GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ***
***Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani***
***Telefono zenbakia: 943 552 087.***
***Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA 25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)***

# "Buah txabal" bakarrizketa saioa, igandean Sutegin

**Lokaletako gazteak hizpide nagusi dituen "Buah txabal!" izeneko bakarrizketa saioa antolatu du NOAUA! Kultur Elkarteak, igande honetarako, apirilaren 22rako, 19:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan. Emanaldirako sarrerak salgai daude 5 eurotan Txiribogan eta NOAUA!-n. NOAUA!ko bazkideek eta 14-16 urte arteko gazteek 3 eurotan erosi ahal izango dituzte, aldez aurretik eta NOAUA!-ko egoitzan bertan. Emanaldi egunean ere eskuratu ahal izango dira sarrerak, 5 eurotan Sutegin.**

Unai Iturriagak sortu duen saioko protagonista, Jon Zubiaga antzezlea da. Garikoitz Kortabitarte "Beti" da bera, 20 urte bueltako gazte bat. Ezizena beti lokalean sartuta egotetik datorkio. Bart, salbuespen moduan, herrira atera da parrandara eta tragedia bat gertatu zaio: mugikorra galdu du. Zergatik da, ordea, mugikorra galtzea halako tragedia? Garikoitzek horren zergatia kontatzen digun bitartean, gazte horrek euskararekin duen harreman gatazkatsua, bere izaera xelebrea eta lokaletako gazteen gaineko topikoen parodia baten lekuko egingo gaitu.



GOSE TALDEKO GITARRA JOLEA DA ANTZEZLANEKO AKTOREA.

## Konpostatze ikastaroak

Konpostatzeari loturiko bi ikastaro antolatu ditu Udalak. Lehenbiziko ikastaroa apirilaren 25erako: lur zatia duten herritarrei zuzendua egongo da, konpostatzearen oinarriak azaldu eta ikastaroa eman ondoren, autokonpostagailuak banatuko dira. Bigarrena, apirilaren 26an, Bizkarreko auzokonpostean izena eman duten 21 familiei zuzendurikoa izango da. Bi ikastaro hauek, 19:00etatik aurrera eskainiko dira Artzabalen.

## Kontzertua Akerran, igandez!

Txokoaldeko Akerra gaztetxekoek kontzertua antolatu dute, baina oraingoan igande arratsalde honetarako. Apirilaren 22an, 18:30etik aurrera: Haulin ´ass, Humilitate eta Bajo Presion taldeek joko dute.

Haulin´ass, hc/punk egiten duen talde italiarra da, eta biran dira. Humilitate talde zarauztarra Amerikako Estatu Batuetatik bueltan, euskal eszenatokietan dabiltza. Bajo Presion taldea Basauritik dator eta hardcore melodikoa egiten dute.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

JATETXEA - TABERNA
BELARTZA
943 37 60 82
Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak
- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, razioak...
- Umeentzat menu bereziak
- Atseden egunak: larunbat gaua eta igandea
DECATHLONen ONDOAN
Poligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 - A4 Pabiloia • Donostia

### Etxebizitza

- Etxebizitza alokatzen da Usurbilen. 3 logela, bi bainu gela, sukalde eta salarekin. 626 347 914.
- Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, eta berogailua. Sartzeko moduan. 35 milioi pezeta. 943 370 957
- Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
-Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
-3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara,igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berrituta, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
-Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
-Alokairuko pisu bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailean. Kalezarren. 665720913.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.

### Salerosketak / garajeak

- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.

### Lanpostuak

#### Lan-eskaerak

- Selektibitatea prestatzeko klaseak jaso nahi ditut martxoan eta apirilean, bi alor hauetan: Matematika (zientzietakoa eta letretakoa) eta Marrazketa teknikoa. Deitu, mesedez, telefono honetara: 665 748 723.
- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume euskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
-Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

#### Lan-eskaintzak

- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerreko lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
-Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
-Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.
-Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf.: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
-Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
-Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatua eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziekin eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf.: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
-Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
-Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757

### Bestelakoak / Galdutakoak

- Giltza batzuk aurkitu ziren Zubietako parkean. Falta baditu Noaua!ko egoitzan daude giltzak. Tlf.: 943 36 03 21.
- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Egoera onean dauden kanping kanadienseak jasoko genituzke. Soberan izanez gero: ziortzage@gmail.com
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon"en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpinean. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai, artoarekin batera egindakoa: 637 974 994.
- Proba ezazu modan dagoen kirola padel!! Klase bat doan. Irakasle tituladunak 667438145.
- Haur sila eta kapazoa, Bogaboo edo antzeko bat saltzen baduzu, deitu telefono honetara: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 (Jesus Mari).
- Legorretako babarruna salgai. 943 80 62 48.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen WII-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaitsitako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen,ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

## Jaiotzak

**Joanes Lope Garcia,** martxoak 7

**Telmo Huizi Jauregi,** martxoak 8

**Markel Linde Hernandez,** martxoak 16

**Ani Santamaria Alkorta,** martxoak 21

**Iban eta Xabier Martin Recio,** martxoak 22

**June Camas Fernandez,** martxoak 26

## Hildakoak



**Jose Mª Escudero Perurena**
80 urterekin hil zen, apirilaren 11n



**Zorionak Jon!** Apirilak 21ean, Happy Birthday! Ondo ondo pasa ta muxu haundi bat etxekoen partez, Nora, Amatxo eta Daddy.






**Zorionak Haizea!** Ze azkar pasatu den urtea, ai ama! Besarkada erraldoi bat aitatxo, amatxo eta zure familiaren partez! Muak!



**Zorionak Aitor!!!** Apirilaren 11n egin dituzu 12 urte. Tarta goxoren bat ekarriko al duzu eskolara? Aginagako zure lagunak.

Burgoinako ardoa ona den arren, nahiago diagu hire urtebetetzea sagardo goxoarekin ospatu. Hik ere bai, ezta? Ea bada, lehenbailehen izaten den.
**Zorionak Ximio!!!**

# Osasun Gida 2012

USURBIL OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan %50arte

Zubiaurrenea, 10. • 943 370 269 •675 708 654

UMEEN BETAURREKOETAN LENTE BAT DOAN!

FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306

Kima
MASAJE LEKUA

·Kirol masajea
·Masaje terapeutikoa
·Kolonaren hidroterapia (idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

iturralde botika
Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 88/07

Maisu formulak
Dermofarmazia
Produktu Homeopatikoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

*Nagusia 10, 1.C4* 943 37 08 78 *USURBIL*

Gida honetan azaltzeko: 943 36 03 21 publizitatea@noaua.com

50€ 20€ 10€ 5€

**Hurbilago txartelarekin, 50, 20, 10 eta 5 €ko 100 erosketa-sari baino gehiagoren zozketan parte hartuko duzu.**

# MARTXOAN ETA APIRILEAN

Hurbilago txartelarekin ordaindutakoan, datafonoko tikean azalduko zaio bezero sarituari bere erosketa-saria. Erosketa-sariaren trukea, Hurbilagoko edozein establezimendutan egin ahal izango da 2012ko maiatzaren 31a baino lehen eta egindako erosketa berri baten zenbatekotik deskontatuko da.